



Jose Luis Camposen etxean miaketa.- Guardia Zibilak EPPK Euskal Preso Politikoaren Kolektiboaren Mintzaidetza Lanetarako Taldearen kontra operazioa egin zuen asteazkenean. Zortzi lagun atxilotu zituzten eta horietako bat Jose Luis Campos. Abokatuia Lasarte-Orian, Uistin kaleko 5. zenbakian bizi da ezagun batzuen etxean alokairuan. Bertan miaketa egitera etorri zen Guardia Zibila 17:20ean eta kalea itxi zuen. Bertara, informazio eske gerturatu zen Lasarte-Oriako alkatea Pablo Barrio etxeko jabeekin batera. Ikusmina handitzen joan zen arratsaldean zehar eta momentu batzuetan jende asko egon zen Uistinen. Atxilotua Bilbotik Heranaira eraman zuten lehenengo Jon Enparantzarekin batera bertan duten egoitzaren miaketan parte hartzera, hangoa bukatutzat eman zutenean Campos etxera ekarri zuten. Arratsalde osoan Guardia Zibila etxebizitza inguruan egon arren, atxilotua ekarri arte ez omen zuten etxea ireki, prezintatuta egon omen zen bera iritsi arte, 23:30ak pasatxo. Herritar batzuk atxilotuaren zain izan ziren eta hau iristean "atxilotuak askatu", "utzi bakean Euskal Herria" eta "Aupa Jose!" oihuak entzun ahal izan ziren. Abokatuaren etxean egon ziren goizeko 3:30ak arte. Herriko eragile desberdinek antolatuta mobilizazioa egin zen bart iluntzean.

3 IKASTAROAK

Kultura eta gazte ikastaro eskaintza anitza

Lasarte-Oriako herritarrek gazte, zein helduek ekaina bitartean hainbat esparrutan trebatzeko aukera izango dute Kultura sailak eta Gazteria sailak antolatutako ikastaroei esker. Coaching-a, oroimen tailerra, perkusioa edo zumba dira eskaintzen diren ikastarotako batzuk.

4 ZOZKETA

TXINTXARRI-ren zozketako irabazleak

Gabonetako ale berezietan iragarri bezala gurekin 20. urteurrena ospatzen zuten herritarrek saria lortzeko aukera zuten. Jasotako argazkiak ikusita, hemen dituzue zozketako irabazleak. Aukeran dituzte diskak edota herrian izango diren antzerkitarako sarrerak.



5 KULTURA

Zinea ostiraletan Manuel Lekuonan

Lasarte-Oriako Udaleko Kultura sailak eta Okendo Zinema taldeak Zine Forum-aren eguna aldatu dutela jakitera eman dute. Okendo Zinema taldearen saioak ostiraletan izango dira hemendik aurrera. Ordua ere aldatu dute eta saioak 22:00etan izango dira aurrerantzean. Gaur da lehenengo saioa eta "Gravity" filma ikusi ahaliko da.



LASARTE-ORIA
Udal Euskaltegia



2014 EUSKARA IKASTAROAK

MARTXAN DAUDEN TALDEETAN SARTZEKO

IKASTARO MODULUAK:

Astean 10 ordu; 2:30 ordu
Astelehenetik-ostegunera.

ORDUTEGIAK:

09:00-11:30
15:00-17:30
18:30-21:00

Txandaka ibiltzeko aukera

MATRIKULALDIA:

2014ko otsailaren 14ra arte

BULEGO ORDUTEGIA:

08:30-19:15



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

EUSKARA
EUSKALTEGIA

web-orria: <http://www.lasarte-oria.org> - Administrazioa - Udala zure zerbitzura
e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org



943 361621

Neure kabuz



Ane Labaka
Abortua

Sarean ikusi nuen irudia. Eta blokeatuta geratu nintzen, pantailari itsatsita. Egun arunt bat baino ez zen, gizon batek izen-petutako erreformak emakumeon etorkizuna erabaki zuen eta Gurutzetan Erztzainek emakumeak arrastaka atera. Ezer berezirik ez.

Gauz ikusi nuen lehen aldiz irudia; biolatzaila bat ageri zen bertan, egin beharrekoak egin ondoren kremailera harrokeriaz ixten. Bere azken biktima zuen ondoan, ahulduta, txikituta. Biolatzailak hala zioen: "Eskerrik asko, guapa. Ez nazazu biolatzegatik salatu eta ez zaitut abortatzegatik salatu. Zure kondena 6 urte gehiagokoa da..." Injustiziatik justiziatik baino gehiago, berriro ere.

Orditik neskaren aurpegi zurbila datorkit gogora begiak ixten ditutan aldiro. 1975etik aurrera, Ipar Euskal Herrian abortua legezatu ostean, abortatu asmoz muga igarotzen zuten ehunka emakumeak gogoratzen ditudan aldi berean.

Eta nik behintzat, Gallardon jauna, argi daukat umetik izatekotan zaintzeko gai sentitzen naitzen eta neuk nahi dudanean izango ditudala. Ez lehenago.

Ni ere oso "provida" izan nintkeen arren, ez dudalako bizitza duinik izango ez duen inor munduratu nahi. Zuen errosarioek eta zuen fedek ez diotelako jaten emango. Edo, besterik gabe, ez dudalako nahi. Ez daukadalako inori esplikazioak ematen jardun beharrik.

21 urte hauetan deskubritu eta ezagutu dudan gorpuztu hau nirea eta soilik nirea delako. Nireak direlako nire umetokia, nire obarioak, nire hilerokoa, nire alua... Zaindu ezazu beraz, zure gorpuztu. Eta utzi nirea bakean.

Zorion agurrak



Naroa

Zorionak Printzesa!
Bost txokolatzeko
muku Oihan, amatxo
eta aitatxoren partetik.



Inge

Zorionak Pitufina.
Ondo-ondo pasa zure
egunean. Maite zaitugu,
aita, ama eta Ximon.



Unai

Zorionak Txapeldun!!
8 muku erraldoi Oier,aita,
ama eta etxeko guztien
partetik. Ilargiraino ta
bueltan maite zaitugu.



Aimar

Zorionak eta lau muku
handi familia guztiaren
partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Jarrai gaitzazue txintxarri.info eta twitter eta facebook kontuetan ere

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Exebizitza alokatzen da Sasoea auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. Harremanetarako telefonoa: 649 526 766.
- Garaje marra alokatzen da Hipodromo Etorbidetan. Merkea. 648 614 769

Salerosketak

- Solarium bertikala saltzen dut, lanpara berrieekin. Prezio onean eta negoziagarria. Tel.: 678 582 706 edo 943 370980.

Lan-eskaintza

- DIAk okina aukeratuko du Gipuzkoa eremurako. Bezeroen arretan, eskaerak kudeatzen, stockaren kontrola eta ogia eta opilak egiten esperientzia duen pertsona behar da. Interesa dutenek haien kurrikuluma bidali behar dute honako helbidera: tamara.lopez@diagroup.com. Erref.: Panadero/a

Lan-eskaria

- Interna, externa edo orduka lan egiteko prest garbiketan edo pertsona adinduen zaintzan. 671 763 558
- Erreferentziak dituen emakume lan bila orduka, interna edo externa zaintza eta garbiketa lanak egiteko. 632 540 759
- Emakume eskaintzen da etxeko lanak egin, haurrak edo pertsona adinduk zaintzeko. Externa edo orduka. Esperientzia du. 610 147 291.
- Emakumea interna moduan edo orduka arratsaldetxeko lanak, garbiketa, edo helduak zaintzeko. Esperientzia eta paperak. 619 803 199.
- Emakumea eskaintzen da haurrak edo pertsona adinduk zaintzeko. 42 urte eta erreferentziak. 611 309 462
- Egunez, orduka edo asteburuetan lan egingo nuke. 633 047 767/642 818 480
- Pertsona helduak zainduko nituzte, orduka edo interna moduan. Asteburuetan ere. 620 607 184.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Destiny Nosas Asemota Ogbemudia, urtarriaren 3an.
- Maddi Gorrotxategi Perez, abenduaren 29an.
- Axular Ibarzabal Amondarain, abenduaren 28an.
- Izaro Agirre Eguimendia, abenduaren 28an.
- Aitana Solano Garcia, abenduaren 22an.

Heriotzak

- Fernando Lopez Lopez, urtarriaren 6an, 80 urte zituela.
- Mariano Sanchez Sanchez, abenduaren 30ean, 86 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 10
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
- Larunbata, 11
Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9 943 019521
- Igande, 12
Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9 943 019521
- Astelehena, 13
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
- Astearte, 14
Urbistondoa, San Frantzisko 1 943 366567
- Asteazkena, 15
Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9 943 019521
- Osteguna, 16
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Aldabe, Perkaiztegi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

Larrialdi telefonoak

- Osasun Zentroa 943 007960
- DYA 943 464622
- Gurutze Gorria 943 363953
- Udalzainak 943 362422
- Ertzaintza 943 288888
- SOS Deiak 112

Udalaren telefonoak

- Erregistroa 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kirolegia 943 376182
- Kulturetxea 943 376181
- Gizarte Zerbitzuak 943 376179
- KIUB 943 361605
- Udal euskaltegia 943 361621
- Munteri AEK 943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttikon Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azumendi, Nerea
Eizagire, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com

administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Aruti,
Asier Odiozola, Ione M.
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALA

Ikastaro eskaintza zabala

Ekaina bitartean hainbat esparrutan trebatzeko aukera

Ikastaro eskaintza berria dago Manuel Lekuonan. Ekaina bitartean coaching-a, oroimen tailerra, cupcake ikastaroa eta bollywood dantzak ikasi ahal izango dira besteak beste. Izena emateko epea urtarrilaren 14an bukatuko da. Bestalde Gazteklubean ere ikastaro ezberdinak izango dira aukeran datozen hilabeteetan.



Cupcake pastelak nola egiten diren ikasi ahal izango da besteak beste.

TXINTXARRI

Manuel Lekuona kultur etxean urtarri-lean hasi eta ekaina bitartean hainbat ikastaro egin ahal izango dira.

Coaching-a adibidez, "gaitasun jakinak garatzeko teknika da, honek gure helburuak lortzera eramaten gaitu eta era berean gure benetako beharrak zeintzuk diren erakusten digu" azaltzen dute antolatzaileek.

Ekonomia ikastaroa egin ahal izango da ere, hau asteazkenean izango da eta hastapen ikastaroa izango dela azpimarratzen da, "ikaslea ekonomia hizkuntzan, logikan trebatzea da helburua".

Mugimenduzkoak

Bestalde, Stretching ikastaroa, luzaketan oinarritzen den ariketa mota da eta edozein kirol edo ariketa fisiko egiten duten pertsonentzat ezinbestekoa da. Honen bitartez giharrak malgutu eta mugimendurako prestatzen dira.

Dantza nahiago dutenek ordea, Bollywood ikastaroa dute aukeran, Indiako dantza

koloretsu eta alaiak prestatzen ikasteko. Gorputza ez ezik, burua trebatzeko aukera ere dago oroimen tailerrean.

Dekorazioa eta sukaldaritza nahiago dutenentzat, hain modan dauden cupcake pastelak egiten ikasi ahal izango da eta urban knitting delakoan trebatu. Azken honetan hiriko altzariak, zuhaitzak apaintzen ikasiko da artilea, haria edo ehun ezberdinak erabiliz. Honetan parte hartzen duten herritarrek, ikasitakoa herriko gune batean eramango da praktika-ara ikastaro amaieran.

Ikastaroen ordutegiei dagokionez, guztiak arratsalde egingo dira eta taldeetan erabiliko den hizkuntza, ikaslearen euskararen ezagutzan oinarritutako metodologia baten arabera definituko da, euskara hutsez eskainiko diren tailerretan izan ezik.

Lasarte-Orian erroldatutakoek 53,80 euro ordainduko dituzte eta errolatuak ez daudenean 101,20 euro. Lasarte-Oriako emate epea urtarrilaren 2an hasi zen eta 14ra bitartean egin beharko da Manuel

Lekuonan bertan edota lasarte-oria.org webgunean.

Gazteklubean ikastaroak

Gazteklubean ere ikastaro ezberdinak antolatu dira. Datozen hiru hilabeteetan perkusioa, zumba eta grafiti ikastaroak egin ahal izango dituzte gazteek.

18:00etatik 20:00etara egingo dira lehenengo biak ostegunetan eta azkena ostiraletan.

Horietaz gain, hilabeteko iraupena izango dute bizikleta konpontzen ikasteko tailerrak, argazkigintzak eta magia ikastaroak. Lehenengo urtarrilaren 23, 24, 30 eta 31ean izango da, bigarrena otsailak 4, 11, 18, 25 eta hirugarrena, martxoak 6, 13, 20 eta 27an.

Egun bakarreko ikastaroa ere izango da. "Inauterietako makillajea" otsailaren 27an egingo da.

Ikastaro hauek guztiak doan izango dira baina bertaratuko den jende kopurua zein izango den jakiteko izena eman beharko da Gazteklubean informazio bulegoan edo email bat bidali gazteinfo@lasarte-oria.org helbidera.

ELKARTASUNA

Trintxerpeko bizilagunei laguntza

Urte zahar egunean Trintxerpeko 42 familia etxe gabe geratu ziren. Elkartasun handiz Pasaia eta inguruko herrietan gaiak jasotzen ari dira familia hauei laguntzeko. Lasarte-Oriak ere bere harritxoak jarri nahi du.

Gure herrian elkartasun puntu bat dago, Alcar Leihoak-en. Bertan kaltetuei laguntzeko beharrezkoak dituzten gaiak jaso eta Pasaia eramango dira. Bilketa 9:30-13:30 eta 16:00-20:00 orduetara egingo da. Informazio gehiago nahi duenak facebook-eko *Yo soy de Lasarte-Oria* orrialdean eskura dezake.

GAZTEKLUBA

Futbolin txapelketa

Gazteklubak futbolin eta antzar joko txapelketa antolatu du 9 eta 12 urteko gazteentzat. Txapelketa datozen larunbatetan bihar 11, 18 eta 25ean jokatu da. Final handiak otsailaren 15ean izango dira.

Parte-hartzea librea da, edozein gaztetxo hurbil daiteke, eta bost eta sei lagunen arteko taldeak osatu da. Talde hauek ere aurrez antolatu ditzakete gazteek lagun artean parte hartzeko. Honetarako Inigo de Loiola kaleko Gazte lokalera gerturatu besterik ez dute gaztetxoek 16:30ean aipatutako larunbatetan. 18:30ak bitartean izango dira saioa guztiak. Parte hartzaile bakoitzak euro bat ordaindu beharko du egunean bertan.

Aurrez lagunekin taldea osatu eta izena eman nahi dutenek aukera dute 943 371 448 zenbakira deituta edota email bat bidalita aisia@ttakun.com-era. Euroaren ordainketa aipatu bezala, egunean bertan egingo da, ez da aurrez egin beharko. Antolatzaileek gaztetxoak animatzen dituzte euskaraz txapelketa honetan ederki gozatzera.

MERKATARITZA

Aterpeak banatu ditu saskiak

Aterpeak Gabonetako saskiak banatu ditu bere bezeroen artean. Herriko merkataria eta ostalariek biltzen dituen elkar-terekin Gabonetako erosketak bultzatzeko sustapen kanpainaren baitan banatu ditu aurten ere produktu saski hauek.

Honakoak izan dira zozketan saria eman eta eskuratu dutenen zerrenda: Ventanas Alcar-en Mari Carmen Castro; Merceria Olmi-n Maixa Sarobe; Lasarte System-en Karmele Gaztelu; Zumaburu liburudendan Unax Ruiz; Urruzola Mertzterian Alex Urdangarin; Santana Informatikan Janet Campoamor; Ormazabal loradendan Espe Iglesias; Arkupe tabernan Puerto Lopez; Confecciones Nogueas-en Juan Garmendia; Bideo Lagunak-en Rocio Gonzalo; Arregui elektrizitatea-n Agurtzane Goikuria; Modas Alban Maria Jesus Gonzalez; Ventanas ISU-n Mari Paz Gimenez; Martinez Multimedia-n Inaki Ina; Ekain liburudendan Lurdes Intxausti; Sukoa burdindegian Mari Carmen Jauregui; Complementos Alda-n Maria Jose Sanz y Barrera; Iturbe zapatadendan Mikel Uridain; Donna-n Carmen Arruti; Maya lenterian Nerea Telleria; Optika Lizarri-n Victoria Manso; Bazar Abreu-n Uxue Calvo; Yoigo-n Inaki Apoita; Orbela Ekodendako saskia Jone Balerdientzat izan da eta Andatza tabernakoa Auri Honradorentzat.

"Tratu On Bat" egutegia kalean

Lasarte-Oriako udalak herriak bizi duen egoera ekonomiko zailari nolabait aurre egiteko asmotan, merkataria eta ostalariekin lanean jarri zen duela hilabete batzuk.

Udalak gurean dauden enpresa txikiak indartu nahi ditu eta helburu horrekin, merkataritza planean adostutako hainbat neurri ari da gauzatzen azken hilabeteetan. "Tratu on bat" marka da horietako bat.

Abenduan aurkeztu zen marka berriaren irudia, elkarri

eskua ematen dioten bi esku dira eta honekin bi kontzeptu irudikatu dituzte "batetik merkatarien harrera ona eta zuzena dela eta bestetik zerbitzua ona eta kalitate onekoa eskaintzen dutela".

Irudi berria dagoeneko kartel eta eskuorrietan ikusi ahal izan da. Pegatinak eta marka berria duen poltsak eta diru-zorroak ere banatu dira.

Egun hauetan berriz, egutegi berezi bat banatzen ari dira. Honen argazkietan herriko merkataria, ostalaria eta zerbitzu ezberdinak eskain-

tzen dituzten herritarrek agertzen dira euren komertzioetan eskaintzen duten "tratu ona" irudikatzen. Lau argazki dira eta hauei ikutu komikoa eman nahi izan zaie.

Egutegian herriko elkar-terekin antolatzen dituzten jaialdi, ekintzak baita udalarenak ere jaso dira hilabetez-hilabete.

Web orrialdea

www.eskaintzak.lasarte-oria.org orrialdea martxan jartzea izango dute hurrengo erronka.



Hauek dira egutegian dauden bi argazki.



Goizane Orozek eta Nekane Solanok Txintxarri Gabonetako parkera eramane zuten.



Kattyk atsegin omen du bere txokoan TXINTXARRI irakurtzea.

Zozketako argazki sarituak

20.urteurrena gurekin ospatu dutenentzat saria

Gabonetako ale berezietan iragarri bezala gurekin 20.urteurrena ospatzen zuten herritarrek saria lortu dute. Hauek dira zozketako irabazleak eta aukeran dituzte diskak edota herrian izango diren hiru antzerkitarako sarrerak.

TXINTXARRI

Urteurrena ospatzeko asmotan iraurleen artean banatzeko hainbat sari genituela eta zozketa proposatu genizuen.

Argazkia bidali dutenen artean egin da eta orrialde honetan argitaratuak dauden irudiak izan dira sarituak.

Euren esku geratzen da ordea, opariaren aukeraketa, Urtz taldearen "Astiro" diskoa, Kaotikoren "E.H. Calling" eta Pirritx, Porrotx eta Marimotosen "Bizipoza" daude batetik.

Antzerkirako sarrerak

Bestalde udaleko kultura sailak bere aletxoak jarri nahi

izan zuen TXINTXARRI-ren urteurrenarekin eta Manuel Lekuonan izango diren puntako haur zein helduen antzerkitarako bi sarrera eman dizkigu.

Horrela, "Kibubu", "Buel-taka" eta "Zazpi aldiz elur" atzelanetarako sarrerak ditugu argazki hauen egileen artean banatzeko.

Lero hauen bitartez eskerak eman parte hartu duzuen guztioi eta aurrerantzean egingen diren zozketetan parte hartzera animatzen ditugu herritarrak.



Ori eta Bizkor maskotekin ere TXINTXARRI.



Peru Olaziregiren argazkia amona Gurutzek bidali du.



Bikote honek gabonak zoriondu nahi izan zizkugun argazkiarekin.



Irakurle txokoko azken saioan Harkaitz Canorekin solasaldia egin zuten.

Irakurle-txokoak aurrera darrai

Irakurle-txokoak izan duen harrera ikusita, euskal literatura ardatz duen txoko honek martxan jarraituko du.

Hurrengo saioa urtarrilaren 21ean, asteartea izango da. Honetan, 18:30etik aurrera, Villa Mirentxura hurbiltzen diren lagunek Alice Munro Nobel saridunaren "Zorion handiegia" aztertuko dute.

Antolatzaileak pozik agertu dira hilabete hauetan bilduren jende kopurua dela eta.

Hurrengo liburua

Era berean, ekainera arteko

saioretan landuko diren liburuen tituluak aurreratu dituzte. Otsailean, Irati Jimenez "Nora ez dakizun hori", landuko da, martxoan Eider Rodriguezen "Katu jendea", apirilean Mari Luz Estebanen "Amaren heriotzak librea egin ninduen", eta ekainean Uxue Alberdi beraren "Euli-giro".

Maiatzeko liburua oraindik erabaki gabe dagoela aipatu dute. Irakurle-txokoko partaideek Virginia Wolfen "Gela bat norberarena" eta Jon Sarasuaren "Hiztunpolisa"

liburuen artean erabaki behar dutela aipatu digute.

Aurreko hiru hilabetearen antzera, hainbat saioetan liburuen idazleak izango dira saioetan. Baina antolatzaileek hurrengo hilabeteetako datak finkatu arte ez dute izenik emango.

Era berean, nahiz eta datak finkatuak ez egon, antolatzaileek txokoko kideei zein honetan parte hartzeko asmoa duten herritarrei lana aurreratu eta liburua irakurtzen hasteko gonbita egingen diete.

Zine foruma ostiraletan

Okendo Zinema taldeak eta Kultura sailak antolatutako saioak egunez aldatu dira

Okendo Zinema Taldeak eta Lasarte-Oriako udaleko kultura sailak ezagutarazi nahi dute elkarlanean sustaturiko Zine Forum emanaldien eguna ostegunetik ostiralera pasatzen dela. Urte hasierarekin batera aldaketa egin da eta lehenengo saioa gaurkoa izango da. Gainera saioaren ordua ere berandutu dute, aurrerantzean 22:00etan ikusi ahal izango dira filmak Manuel Lekuona kultur-etxean.

TXINTXARRI

Okendo Zinema Taldeak bi ostegunetan behin udalaren kultura departamentuarekin batera antolatzen duen Zine Forum emanaldiei "indar gehiago emateko asmotan eguna aldatzea erabaki da", saio hauek ostiralera pasatzea, hain zuzen ere.

Okendo taldeak urteetan egindako lanari esker, Lasarte-Oriako ZineForum saioak ikuslego finko batekin mantendu direla azpimarratu nahi izan dute kultura sailetik. Horrela azken urteetan hainbat izan dira esparru honetan egindako aldaketak.

2012tik aurrera, esaterako, Zine Forumeke emanaldia, filma, igandeetan errepikatze-ko erabakia hartu zen. Emanaldi hau gehituz, herritar gehiagori herrian bertan zineaz gozatzeko aukera eskaini zitzaion.

2013ko azaroan, helduen saiorik ez zegoen igandean, "programazio propioa jarriz lortu da Lasarte-Orian, igandero, helduen zine-saioa ego-

tea, "Las Brujas de Zugarramurdi", "MUD" edo "El Mayordomo" pelikulak ikusi ahal izan dira, bestek beste".

Ostegunetik, ostiralera

Oraingoan, Okendo ZT eta kultura departamentuak osteguneko saioa ostiraletara pasatzea adostu dute, gaueko 22:00etara atzeratzearekin batera.

Jakitera eman dutenez, "ikuslegoarentzat erakargarriagoa izan daitekeelakoan" eta "ostiralero Manuel Lekuona kultur-etxean kultur ekitaldi bat egotera iristeko zorian egon gaitzkeelako, kultur-arloko beste programazioen batekin edota beste herri batzuetako elkarteek antola ditzaketean ikuskizunekin batera".

"Eskaintza zabala eta ona edukita", herritarrek Manuel Lekuonara gerturatzea bilatzen du kultura sailak.

Saio hauen lehenengo hitzordua, gaurkoa izango da. 22:00etan hasita, "Gravity", Sandra Bullock eta George Clooney aktoreak protagonis-



Igandeko saioak 2012an hasi ziren eta harrera ona izan dute herritarren artean, hau izan zen lehenengo igande hartako ilara.

ta dituen film entzutetsua ikusteko aukera izango da.

Datozen hilabeteetako zine-kartelera aurreratu du kultura sailak bide batez.

Gaur 22:00etan eta igandean 19:30ean "Gravity", urtarrilaren 19an "Blue Jasmine" 19:30ean eta urtarrilaren 24ean 22:00etan eta 26an 19:30ean "Vivir es fácil".

Otsailaren 2an berri, 19:30etan ikusi ahal izango da berriki Goya sarietarako 11 izendapen jaso dituen Daniel Sánchez Arévalo zuzendariaren "La gran familia española" filma. Otsailaren 9an

19:30ean "Tres bodas de más" ikusi ahal izango da eta otsailaren 14 eta 16an "De tal padre tal hijo" film japoniarraz gozatu ahal da. Film honek Donostiako zinemaldian publikoaren saria eta Canssen epaimahaiarena jaso zuen. Otsailaren 23an "Sobran las palabras" eta otsailaren 28an "Stockholm" filmak izango dira Manuel Lekuonan ikusgai.

2014ko salneurriak

Era berean, 2014rako udalak adostutako prezioak argitaratu ditu. Haur zinea atalean, 3,70

euro leihatilan erosita, internet bidez 3,18 euro eta 10 filmerrako bonoak 25,30 eurotako kostua izango du. Helduen Zinea berri, 5,90 euro leihatilan, internet bidez erosita 5,30 eta 10eko bonoa 45,50 euro. Ostiraletako Zine Forumerako sarrerak 4,70 euroko prezioa izango du, internet bidez hartuta 4,24 eta 10 saiorako bonoak 35,40 euro.

Haur Antzerkia saioetarako sarrera, berri, 3,00 eurotan salduko dela jakitera eman du ere kultura sailak eta internet bidez hartuta 2,70 euro.

Hiru Errege Magoen bisita berezia

Errege egun bezperan, Lasarte-Oriako haur, zein helduen gurariak eta eskutitzak bildu zituzten Errege Magoek.

Goizean Atsotakarreko zaharren egoitzan izan ziren herriko adinduei opariak banatzen. Adineko askok Meltxor, Gaspar edo Baltasarrakin argazkiak ateratzeko aprobetxatu zuten Erregeen egonaldia.

Eguerdian, erregeen laguntzaileak Ama Brigitarren komentuan eta Okendo plazan haurren eskutitzak jasotzen izan ziren.

Harrera eta kabalgata

Arratsaldean, lehenik haurren harrera egin zuten Erregeek. Nahiz eta harrera ordu berria izan, hainbat izan ziren komentura hurbildu eta haien eskutitza eta nahiak erregeei azaldu zizkieten txikiak.

Ostean, eguraldi ona lagun, jende andana irten zen kalera kabalgatuz gozatzera. Haur eta gaztetxoak Meltxor, Gaspar eta Baltasar ikusteko ilusioaz gain, gozokiak biltzeko grinarekin etxetik jaitsi ziren.

Kabalgata Orian hasi, Zirkuitu Ibilbidean barrena joan, Kale Nagusia, Jubilatuen egoitza eta Brigitarren komentuan geldialdia egin zuten.

Jaiotzeko haurra gurtu eta mojei bisitatxo bat egiteko. Erregeak dantza egitera ere asartu ziren mojek jarritako errimoepen.

Ibilbidearen azken zatian Kale Nagusia, Hipodromo etorbidea, Pablo Mutiozabal kalea, Iñigo de Loyola kalea eta Geltoki kalea zeharkatuta Antonio Mercero plazara iritsi ziren Erregeak antortza artean. Bertan su-festa laburak hartu zuten kabalgata.

Udaletxeko balkoira igo eta Okendo plazan bilduta zegoen jendetzari hitz egin, gozokiak bota eta erdaraz zein euskaraz eskutitz bana irakurri zituzten Hiru Errege Magoek. Baltasarrak jarri zion ukitu exotikoa ilunabarrari, ingelesez egin baizien harrera herritarrei, hauen harridurarako.

Sari banaketa

Aurtengoak hainbat berritasun izan ditu. Horien artean, IV. Marrazki eta pintura lehiaketako sari-banaketa.

Kabalgataren ostean, Udaletxeko balkoian egin zuten banaketa MEGABA elkarteko lagunek. 10-12 urte bitarteko mailako irabazlea izan zen Olatz Bardajiren irudia izan zen Erregeen kartelerako erabili zena. Gainontzeko mailetako irabazleak Enara Gomez eta Naroa Elvira izan ziren.



Herritar ugari bildu zen Lasarte-Oriako erdigunean Errege Magoak ikusteko.



Naroa Elvira, Olatz Bardaji eta Enara Gomez marrazki lehiaketako irabazleak izan ziren.

PILOTA.

Solano trinketako finalerdian

Intza-ko Aritz Solano jubeni-
lak lehengo ostiralean
Gipuzkoako Trinket txapelketako finalaurretarako txartela lortu zuen Mundaroko Egoitz Olarra 35 eta 23 garaitu ostean. Larunbata honetan, Irurako trinketea Oiarpeko Xabi Azpirozaren aurka jokatu du partidua.

Joxe Felix Solano entrenatzaileak azaldu digunez, final laurdeko partidako lehen minutuetan Astigarragako Olarra nagusi izan zen eta 6-0eko jarri zuen markagailuan. Aritzek ordea berdinketa lortu zuen eta hortik aurrera partida orekatua izan zen. Aritz 19-12 aurreratu zuen eta partida bere alde jartzeko zela zirudien arren, arerioa 19-18 eta 22-20 gerturatu zuen.

Orduan Aritzek "tanto ederrak egin" eta 33-20 jarri zuen markagailuan.

Finalurreko berdindua

Era honetara, Lasarte-Oriako gazteak Oiarpe elkarteak Xabi Azpirozaren aurka jokatu du finalerdia larunbatean 15:15ean hasten den jaialdian.

Intzako entrenatzaileak azaldu digunez, "maila bereko pilotariak dira. Oiarpeko pilotariaren arriskurik handiena saka da, Aritzek ongi erantzuten badu irabazteko aukera handiak izango ditu. Izan ere, arerioa baino teknikoagoa baita".

IGERIKETA.

Ibarburuk Euskadiko errekorra

Ibarburu eta Tolosa Nazioarteko Eguberrietako Sariko finaletan izan ziren

Buruntzaldea IKT-ko igerilariek ez dute atsedunik izan Gabonetan eta ederki lehiatu dira. San Esteban, saria, Hernaniko Saria eta Nazioarteko Eguberrietako Sarian izan ziren lehian eta domina uzta handia lortu dute. Gainera, Iñigo Ibarburuk 50 m. tximeleta probako Euskadiko errekorra egin zuen.

TXINTXARRI

Txapelketaz txapelketa dabilta Buruntzaldea IKT-ko lagunak eta lan ederra egiten ari dira domina eta markak metatzeko.

Abenduaren 29an, Nazioarteko Eguberrietako Txapelketa burutu zen Ordizian eta bertan Buruntzaldea IKT-ko Iñigo Ibarburu, Itsaso Tolosa, Mikel Esnal, Haitz Mitxelena, Garazi Alkorta, Mikel Soto eta Naiara Lizaso izan ziren lehian.

Igerilariek haien markak hobetzea lortu zuten, baina azpimarratzekoa da Iñigo Ibarburuk eta Itsaso Tolosak bina finaletan parte hartu zutela. Haitz Mitxelenak ere eskura izan zuen 100 m. tximeleta probako finalean egotea, baina ehuneko batzuegatik ezin izan zuen lortu.

Iñigo 100 m. eta 50 m. tximeleta probetako finalean


lehiatu zuen. 100 m.-ko proban zilarrezko domina eskuratu zuen eta 50 m. proban, nahiz eta bosgarren izan, 16 urteko Euskadiko Errekorra hautsi zuen Lasarte-Oriako gazteak. 25"96 marka eginez, 2009 urtetik Julen Zabalok zuen 26"04 marka hobetu zuen.

Itsasok, berriz, 100 m. eta 50 m. bizkar probetako finalean iritsi eta bietan seigarren postua eskuratu zuen.

Hernaniko Saria

Hernaniko Sarian, abenduaren 28an, ederki ibili ziren ere infanil, junior eta absolutuak.

Podiumeko lehen mailan izan ziren: Iñigo Ibarburu 100 m. tximeleta eta 100 m. estilo probetan, Itsaso Tolosa 100 m. bizkar eta 100 m. estiloetan, Enara Arruti 50 m. bular proban, Mikel Esnal 100 m. bular proban, Naiara Lizaso



Iñigo Ibarburu 100 m. libre probako sailkapen saioan igerian.

BURUNTZALDEA IKT

100 m. libre proban, Janire Berasarte 50 m. libre proban.

Zilarra eskuratu zuten Nahia Jie Villamedianak 50 m. bizkar eta 100 m. estilo probetan, Mikel Sotok 50 m. bular proban, Jone Vazquezek 100 m. libre proban eta Haitz Mitxelenak 100 m. estiloetan.

Haitz Mitxelenak eskuratu zuen brontze bakarra eta hau 100 m. bular proban izan zen.

Gainera, nesken, zein mutilen 4x50 erreleboan Buruntzaldea IKT garaile izan zen eta Sariko txapelketa izan zen.

San Esteban Saria

Abenduaren 22an, berriz, Buruntzaldea taldeko benja-

min eta alebinak Oiarpezun izan ziren VIII San Esteban Sarian parte hartzen eta igerilarietako batzuk podiumean izan ziren.

Hau guztiaz gain, taldea txapelketa izan zen sailkapen orokorrean.

Liga Lasarte-Orian

Bestalde, asteburu honetan ere hitzordu berriak dituzte.

Larunbatean Lasarte-Orian ospatuko den Ligako hirugarren jardunaldia izango dute infanil, junior eta absolutu mailako igerilariek.

Igandean, Jone Vazquez Euskal Herriko Distantzia Luzeko Txapelketan izango da Getxon. Bertan Espainiako Luzera Handiko Txapelketarako sailkapena bilatuko du.

KIROL AGENDA.

FUTBOLA

Larunbata 11

Asti-txiki, Zarautz, 09:30ean
Zarautz-Ostadar B I. infanila
Michelin, 10:30ean
Ostadar-Urnieta I. kadetea, kopa

Michelin, 12:00etan
Ostadar-Urnieta
Infanil Txikia, partaidetza

Gobela, Getxo, 12:30ean
Romo-Ostadar
Euskal Liga, Kadeteen Ohorezko maila

Michelin, 15:30ean
Ostadar-Touring Emakumezkoen Liga
Arizkorreta, Idiazabal, 16:00etan

Idiazabal-Texas Lasartearra
I. Jubenila, kopa
Michelin, 17:15ean

Texas Lasartearra-Gazte Azkuene
I. Erregionala, kopa

Mastegi, Lesaka, 17:30ean
Beti Gazte-Ostadar
Jubenilen Ohorezko maila

Garmendipe, Azpeitia, 19:00etan
Lagun Onak-Ostadar
Erregional Ohorezko maila

Igandea 12

Michelin, 10:30ean
Ostadar-Tolosa
I. Jubenila, igoera

Berio, Donostia, 14:00etan
Santo Tomas Lizeoa-Ostadar B
I. kadetea, kopa

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 10
HERRIKO TXAPELKETA
19:45ean, Balerdi-Trumoi
20:45ean, Arkupe-Indaux

Larunbata 11
HERRIKO TXAPELKETA
09:15ean, Buenetxea-Urdaneta
10:15ean, Viña del Mar-Ilargi
11:15ean, Izarra-Aritzia
12:15ean, Txindoki-Izkiña

Kiroldegia, 15:30ean
ISU Leihokak-Gamon Aker Pub
Gipuzkoako Liga

Igandea 12
Zaldibar, 18:00etan
Mallabia-Aldaz H.K. Nazional III. maila



SASKIBALOA

Larunbata 11

Antzitar kiroldegia, Beasain, 12:30ean
Arri BKL A-Ostadar SKT
Nesken kadete maila, errendimendua

Igandea 12
Kiroldegia, 11:00etan
Ostadar SKT-Luberri Askatuak
Nesken junior maila, parte-hartzea

PILOTA

Larunbata 11
Ametsa trinketea, Irura, 15:15ean
Intza-Oiarpe I. Eskuz banaka jubenila.
Trinketa txapelketa. Finalerdia

IGERIKETA

Larunbata 11
Kiroldegia, 16:00etan
Buruntzaldea IKT-ko infanil, junior eta absolutu mailako igerilariek Ligako 3. jardunaldian parte hartuko dute.

Igandea 12
Getxo, 10:00etan eta 17:00etan
Buruntzaldea IKT-ko Jone Vazquezek Euskal Herriko distantzia luzeko txapelketan lehiatuko da.

ATLETISMOA

Ostirala 10

Anoetako belodromoa, 18:00etan
LOKEko atletek kadete, jubenil eta junior mailako Gipuzkoako txapelketako saioa dute.

Larunbata 11
Anoetako belodromoa, 10:00etan
Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko gaztetxoek eskolarteko alebin eta infanil mailako proba konbinatuak lehen saioa dute.

Anoetako belodromoa, 16:45ean
LOKEko atletek kadete, jubenil eta junior mailako Gipuzkoako txapelketako saioa dute.

Igandea 12
Betelu, 12:00etan
Herriko hainbat atletek IX. Araitz-Betelu proban parte hartuko dute.

JUDO

Larunbata 11 eta igandea 12
Tortosa, egun osoa
LOKEko Yeray Mendibe eta Ander Garrido infanilek Espainiako Kopako jardunaldian parte hartuko dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 11

Atsokabar parkea, 11:00etan
Buruntzazpi txirrindularitza eskolako infanil eta alebin saioa dute.

Igandea 12
Antonio Elortza belodromoa, 09:45ean
Buruntzazpi txirrindularitza eskolako gazteek pista
Gipuzkoako trofeo jardunaldia dute.

ERRUGBIA

Larunbata 11
Durango, 13:00ean
Durango-Beltzak Ostadar Gure Exxea Euskal Liga, kadeteak


Igandea 12
Michelin, 09:00etan
Beltzak Ostadar Jalai Errugbi eskolako gazteek entrenamendua dute.

BOLA-JOKOA

Igandea 12
Hernani, 09:30ean eta 16:00etan
Ostadar SKT-ko bola-joko taldeko lagunak Taldekako txapelketaren lehen saioa jokatu dute.

Agenda

Gaur, ostirala 10, 22:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxean



Zinea ostiraletan

Okendo Zinema taldeak denboraldi berriari hasiera emango dio egun aldaketarekin. Hemendik aurrera ostiraletan izango da hitzordua. Lehenengo saio honetan, "Gravity" Alfonso Cuarón zuzendari mexikarraren filma ikusiko da. Emakume eta gizon batek, George Clooney eta Sandra Bullock, espazioan egindako bidaia bat kontatzen du, oztopoz eta zailtasunez bete. Lanaren oinarri nagusia fikzioa da. Sarrera, leihatilan 4,70 euro; internet bidez, 4,30 euro. Gaztelaniaz.

emanaldia izango da. **Ostean**, Violadores del Verso taldeko Sho-Hai Dj lanetan. Rap saioaz gozatzeko aukera izango da.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Urtarrila bukaera arte



Paco Altuna herritar-
rrak Lasarte-Oriako hainbat eraikinetako maketak erakusgai jarri ditu.

Andoain

Antzerkia

BASTERO KULTURGUNEA
Ostirala 10, 21:30etan

Txalo produkzioak "Ondoko hilobiko tipoa" komedia estreinekoz eskainiko da. Sarrera, 12 euro.

Hernani

Erakusketa

BITERI KULTUR-ETXEA
Urtarrilaren 21era arte

"Condor legioak eragindako Gernikaren suntsipena" erakusketa ikusgai. Lau Haizetara Gogoan-ek antolatua.

Azoka

ATSEGINDEGI PLAZA

Larunbata 11, 10:30etik 13:30era
Bigarren eskuko azokan gauzak interesgarriak erosteko aukera izango da.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 12,
17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, "Turbo" filmaz gozatzeko aukera izango dute etxeko txikiak. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,20 euro.



Igandea 12, 19:30ean

Helduentzako zinea, "Gravity" filma eskainiko da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,40 euro. Gaztelaniaz.

Antzerkia

ABEND KAFE ANTZOKIA

Larunbata 11, 00:00etan

Bocabeats bikoteak emanaldia eskainiko du. Umorea eta beatboxa nahastu den saioaz gozatzeko aukera izango da.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 18, 18:00etan

Haurren gozamenerako "Kibubu" antzerkia izango da. Sarrera, leihatilan 3 euro; internet bidez, 2,7 euro. Euskaraz.

Musika

ZULO ARETOA

Larunbata 11,
22:00etan

Corredores de Bloque eta Itoitz&Jon Caste-ren



Herritarren txokoa

Eskutitza

2013ko uzta bikaina

2013 urtea joan da. Une egokia azken 12 hilabeteetako balantzea egiteko. Hondakinen kudeaketaren arloan, atzera begira jarrita, askok, urte zalapartatsua izan delako irudipena izango dute. Gure osasunaren eta ingurumenaren kontura bestelako etekinak atera nahian dabilenik ez da falta, eta, ezin uka, hautsa harrotzea lortu dutenik. Burrumba mediatiko handia eragitea lortu dute bederen, inork gaia kezkatu eta larritasunez ikusteko moduko zalaparta.

Baina azterketa serio bat egingo badugu, harrotutako hautsa bere lekura itzultzen utzi, eguneroko aztoramendutik aldendu, eta aldaketa zehatz eta neurgarri erreparatu beharko diegu. Horrela, 2013 urtea, Gipuzkoan, Zero Zabor bidean urrats handiak egin diren urtea izan dela ikus dezakegu. Ona hemen esandakoa berresteko zerbait datu.

3 herritik 1 +70 herrien taldera

2013 urtea hasi zenean, hondakinen %70etik gora gaika biltzen zuten 5 udalerririk besterik ez zeuden Gipuzkoan. 2013a bukatzerako 27 dira, urte hasieran zegoen halako 5. Gipuzkoak 89 udalerririk dituela kontuan izanda, 3 udalerririk 1 tek hondakinen %70 baino gehiago gaika biltzen ditu honezkerok, horietatik askok %80tik gorako gaikako bilketa daukatelarik. 2013 urtean,

gaikako bilketa lorturiko emaitzen eraginak udalerririk mailakoa izateari utzi dio, eta jadanik, mankomunitateen datuetan ere islatzen hasi da. Sasieta mankomunitatea dugu horren adibide. Sasieta buru jarri da hondakinen erdia baino gehiago gaika biltzera helduz.

Ez da makala datua. Baina lorpen handiak ez dira horretara mugatzen. 2013 urtea hasi zenean, hondakin organiko guztia herrian bertan ongarri bihurtzen zuten herri bakarra zegoen Gipuzkoan, Orendain, eta, hau ere, hasi berria zen horretan. 2013 urtea amaitzerako 8 udalerririk dira jada hondakin organiko zabortegietan usteltzera bidaltzeari utzi, eta, den dena, herrian bertan konpostatzen dutenak, gainerako hondakin birziklagarri guztiak gaika bilduz. Herri txikiak hondakinak kudeatzeko bide merke eta jasagarri hori kontsolidatu da, eta etor daitezkeen beste mordo bati bidea erakutsi dio.

Hondakin organikoa konpostatzen duten herritarren kopurua %50 hazi da urtean zehar. Lurrik ez daukaten herritarrei hondakin organikoa konpostatzeko aukera ematen dien formula, auzokonpostarena, 8 herritatik 39tara zabaldu da, ia 5 aldiz biderkatu da beraz, eta, auzokonpostatzaile kopurua 6 aldiz hazi da.

Aurrerapen ideologikoa

2013 urtean erdietsitako lorpenak ez dira hondakinen bilketa lortutako emaitzetara

mugatu. Zero Zabor errealitatea eraikitzen doan neurrian eutsi ezinaz dira, lehen, aurrera egitea oztopatzeke erabiltzen ziren hainbat eta hainbat gezur eta sasiargudio.

Gipuzkoan, lehen ez bezala, gaur egun inor gutxi defendatzen du publikoki kutsatzeko eskubidea, hondakinekin sudur puntan jartzen zaiguna egiteko eskubidea daukagula alegia. Hondakin birziklagarriak gaika bildu behar direla diote eragile ia guzti-guztiek.

Bestalde, atez ateko bilketa eraginkorra zeukaten herriak zikinkeriz eta arratoiz beteta zeudela ziotenek, orain, pertzepzio hori "subjektiboa" dela esatera pasa behar izan dute, izan ere, errealitatea handiegia egin zaie gezurrekin estaltzen segitu ahal izateko.

Bilketa sistemen arteko eztabaidan ere urratsak egin dira. 5 edukiontziko sistemak "birziklatzeko" balio ez duela gero eta agerikoagoa da, bilketa datuek nabarmen uzten baitute hori. Emaizta ziurrak ematen dituen atez ateko bilketa ezarri nahi ez bada, beste zer edo zer asmatu beharra dagoela entzutez pasatu gara 2013an zehar sistema honen aurkakoen ahotik. Beste sistema horiek definitu eta horien balioa frogatzeko badago ere, porrot ziurra bidea zein den garbi edukitzea aurrerapen handia da.

Errausketaren arotik zero zabor arora

2013 urteko lorpenak aipatzerakoan ezin dugu ahaztu zuzen hamaika urteetan Gipuzkoarrak mehatxatu gaituen mamutzararren amaiera. 2013ko azaroen GHK-k eta

errauste planta eraiki behar zuten enpresen artean akordioa lorturik, bertan behera gelditu zen proiektu toxiko eta garestia.

Horrekin batera, errausketaren eta zaborraren aroari amaiera eman zaio Gipuzkoan, eta Zero Zabor aroan bameratzen hasi gara, hondakinak arazo eta kutsadura iturri bihurtu beharrean, baliabide bezala kudeatzeko aroan.

2014 urterako erronkak

Zero Zabor eredu eraikitzen hasi besterik ez gara egin. Ikaragarri aurreratu dugu, eta, hala ere, hobekuntza tarte handia dago oraindik. Zero Zabor bidean lortzeko daukagunak asko dira. Zabortegei kutsakorrik ixtea, hondakinak tratatzeko azpiegitura berriak eraikitzea, errefusari toxikoak ez diren tratamenduak ematea, gaikako bilketa eraginkorra herri guztietara zabaltzea...

Oztopoak jarri dizkigute eta oztopoak jarriko dizkigute, zenbaitzuk, herritarren osasuna eta ingurumenaz oso bestelako interesak lehenesten dituztelako, baina aurrera egin dugu eta aurrera egingo dugu, Gipuzkoan Zero Zabor lurralde izango dela erabaki baitugu. Gure xedea lortuko badugu, oztopatzaileek zer egiten duten begira egotea baino, gure bidean aurrera jarraitzea da garrantzitsua. Segi dezagun lanean bada.

2013 urteko lorpenak aurrera egiteko pizgarri apartak dira.

Lasarte-Oria Zero Zabor

Harresi guztien gainera, hitzak

Presoen lagunak taldeak errezitaldi ekitaldi berezia egin zuen abenduaren 3an

Presoen lagunak taldeak Lasarte-Oriako Elkartasun Eguberriak egitarauari amaiera eman zion abenduaren 3an. "Harresi guztien gainera, sarraila guztien azpitik jasotako hitzak" errezitaldia ohiko hitzordua bilakatzen doa eta hone-tan herriko presoen hitzak irakurtzeaz gain, hauek antzeztu eta dantza zein musikarako tartea ere izan zen. Manuel Lekuonan une hungarriak bizi izan ziren eta txalo zaparrada luzeek aretoa bete zuten behin baino gehiagotan.

JON ALTUNA EGITEGI

Herriko presoen Frantzia eta Espainiako zenbait kartzelatik bidalitako hitzekin errezitaldia egin zuen abenduaren 3an Lasarte-Oriako presoen lagunak taldeak.

Emozio handiko momentuak bizi ahal izan izan ziren publikoarentzat. Ikusleen artean ziren askatu berri dituzten Txurdi, Ina, Mixel eta Niko preso-ohiak.

Errezitaldia ekintza bete-rikoa izan zen, erritmo askokoa. Izan ere, ez ziren presoen bidalitako hitzekin irakurketa soil bat egitera mugatu. Antzerki, dantzaz edo musikaz jantzi zituzten hitzak eta eszenografia konplexuak gehitu zizkieten.

Hasteko musika

Makulu Ken musika taldearen eta Xumela abesbatzaren akorde eta kantuek ireki zuten errezitaldia Aitzol Iriondoren hitzei paso eman aurretik. Hainbat kontestuan giro-tutako antzerkiak egin zituzten Aitzolen hitzak ardatz hartuta. Besteak beste, parranda giroa, inkisizio garaiak edota aita-amak preso dituzten haurrak izan zituzten gogoan Iriondoren hitzek. Egoera horiek guztiak antzeztu egin zituen herritar talde batek.

Ostean Ibon Fernandez Iradi esklerosi antzerekin larri gaixoturik dagoen presoaren hitzak entzun zituen Manuel Lekuonak.

Ibonek zigor ziegan egin-dako 15 egunak antzeztu zituzten eta bertan ezagutu-tako lagun senegaldarrekin egindako harremana deskribatu zuten. Lagun horren papera egiten Pablo Barrio herriko alkatea aritu zen.

Askatu berriak

27 urte espetxean egin ondoren berriki aske utzi dituzten herriko lau presoak gogoan izan zituzten Ane eta Maddi Labakak.


Bertso pare bat eskaini zizkieten doinu goxoan, kartzelako hotzak ahaztuazteko modukoak. Azken bertsoa bereziki Txurdiri eskainia izan zen.

Jarraian iritsi zen errezitaldiko momentu hungarriene-tako bat. Pello Eskisabelek kartzelatik bidalitako hitzak audio formatuan izan ziren entzungai, eta espetxean ar-ratako zenbait argazki ere txertatu zituen bideo proiektzioan. Kartzelako egunerokoa nolakoa den azaldu eta egin-dako margolanak erakutsi zizkien herritarrei. Txalo zaparrada luzea jaso zuten haren hitzek.

Duela lau urte pasatxo Bateragune auzian atxilotua izan zen Rafa Diezen testua irakurtzen aritu zen, besteak beste, Naïke semea. Lanean jarraitzeko deia egin eta bake eta askatasuneranzko bidean itxaropena euskal jendarte-engan jarri beharra dagoela nabarmendu zuen LAB sindikatuko idazkari nagusi izan-nak.

Arnas pixka bat hartzeko, Ahuen taldeak kantu bat eskaini zion Manuel Lekuonako areto nagusian bildu zen jendeari eta lurgiren hitzekin jarraitu zuten.

Gutxi argitutako eskenato-kian, bakartutako lau mahai eta Txalagoreren txalaparta soinuekin interpretatu zituzten lurgi preso bilbotarraren hitzak. Momentu horretantxe



Presoen hitzak antzeztu zituen herritar talde batek Manuel Lekuonan Presoen Lagunak taldeak antolatutako ekitaldian.

bi kriseilu piztu zituzten errezitaldiko azken txanpa osatzeko.


Dantzarekin amaitu zen errezitaldia. Preso eta ihesla-rien izenak atzean zituztela, Agurra, Soka-dantza eta Agintarien dantza egin ziren ekitaldi amaieran.

Aipagarria izan zen Manuel Lekuonan bildutako ikusleagoak zutik txalo zaparrada luzea eskaini ziela errezitaldian parte-hartu zuten herritarrei.

Elkartasun Eguberrietako azken ekitaldia izan zen hau. Urtarrilaren 11ean Bilboko kaleak betetzeko deia egin zuen Lasarte-Oriako presoen lagunak taldekoek.



Agurra, Soka-dantza eta Agintarien dantza egin zen amaiera emateko.



Ibon Fernandezek zigor ziegan lagun senegaldarrekin gertatutakoak kontatu zituen bere idatzian, ezkerrean. Eskubian Unai Muñoa Txurdi, Ina, Mixel eta Nikoren idatziarekin.